



Estado del proyecto

Baimen guztiak jaso gabe ireki dira AHTaren zakartegi gehienak (2010-06-16)

«Hondakindegia barik ez dago obrarik». Horrekin dena esan du Kimetz Etxeberria teknikariak. AHT abiadura handiko trenaren lanak gertutik jarraitzen ditu Etxeberriak, eta obrentzako zabortegei gehienak baimen guztiak jaso gabe ireki dituztela azaldu du. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan abian diren AHTko lanetako lur eta hondakinak biltzeko, 32 hondakindegia ireki dituzte; azaroan, bik baino ez zituzten baimen guztiak arauz. Martxoan, zortzi hondakindegia zeuden araututa.

Zabortege horien egoerari buruzko galderak egin dizkio Aralarrek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari; udazkenetik, lau alditan. Horietako batean, aurtengo otsailean, Pilar Unzalu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak erantzun zuen Espainiako Sustapen Ministerioari zegokiola ingurumen baimenak errespetatzen ari ote ziren behatzea. «Gezurra da hori», adierazi du Etxeberriak. Europako ingurumen artezbideten arabera, administrazio guztiek betebeharra dute zabortegeietako baimen eta lanen jarraipena egiteko, baita udalek ere beren lurretan: «Inork ezin du zabortegei bat ireki baimenik gabe». Aurtengo martxoan berriro pausatu zuen galdera Aralarrek: zabortegeiak irekitzeko 32 eskaera jaso dituela, eta Ingurumen Sailak zortzi egiteko baimena eman duela azaldu zuen Unzaluk orduan. Zortzi horiez gain, beste 11 hondakindegia irekitzeko eskaerak egin dituztenei txosten gehigarriak eskatu dizkie Ingurumen Sailak. Unzaluk, beraz, onartu zuen AHTko lanetako zakartegien hiru laurdenek martxoan ez zituztela baimen guztiak arauz. Erantzunak jaso ostean, maiatzaren 24an, legez besteko proposamena aurkeztu zuen Aralarrek; «lanak burutzeko baimen sektoriala izan gabe martxan dauden AHTko obra guztiak» geldiarazteko eskatu zuen alderdiak.

Berriki galdera pausatu dio kazeta honek Jaurlaritzako Ingurumen Sailari, eta hark ez du argitu zenbaterik duten baimena egun. Aitortu du sei zabortegei baimentzeko premiazko prozedura zabalduta dagoela, baina gainerakoei buruz ez du zehaztasunik eman. «Iraganean, eraikuntza enpresek zabortegeiak zabaltzeko leku bat baino gehiago eskatzen zituzten, haietako bakoitzean bioaniztasun txostena egin behar zelako. Hala, baten bat hutsean geratzen bazen, besteekin jarraitu ahal izango zuten aurrera», azaldu dute Ingurumen Saileko iturriek. Egun, enpresek hartzen dute kokaleku bat, eta bioaniztasun txostena eurek egiten dute. Ondoren, Jaurlaritzari igortzen dizkiote datuak.

Jaurlaritzaren esku dago Gipuzkoako zatiari dagozkion hondakindegia eta betelanak baimentzea, eta Adifen esku Araba eta Bizkaiko zatikoak. Jaurlaritzak aitortu du, edonola ere, arazoak dituztela. «Aurreko legealdiko lan administratiboak askatzen ari gara. Eta horien artean dago AHTaren hondakindegiena».

Ildo horretan, Jaurlaritzak dio aurreko legealdian hainbat zabortegei bidea eman ziotela, aldi baterako metatzearen prozeduraz, lanak eten behar ez izateko. Gehienetan, behin-behineko metaketak egin ziren lekuetan ari dira, orain, zakartegiak arautzen. «Jarduera horiek dira orain Jaurlaritzak arautu behar dituenak, normalean tokian tokiko egokitze, drainatze eta uharridien bidez.

Jakina, hori garestiago gertatzen ari da horrela hasieratik modu egokian egin balitz baino».

Iñaki Arriola EAeko Herri Lan sailburuak esan du obrak 300 milioi euro garestitu direla jadanik Gipuzkoako zatian, ingurumenari dagozkion lanak direla eta.

Jaurlaritza, «gaindituta»

Ingurumen Sailaren barneko antolaketa, Hondakinen Kudeaketarako Zerbitzuaren gain dago betelanetarako eta zaborteziak irekitzeko baimenak ematea eta haien jarraipena egitea. Zerbitzua «gainditua» dago, sailaren arabera. Iazko maiatzean txosten bat idatzi zuen Ingurumen Sailak, egoera horren berri emanez: «Zerbitzu horrek zailtasunak izan ditu, azpiegiturak ugaritu egin direlako eta, EAeko araudiaren arabera, zeregin asko kudeatu behar dituelako». Zaborteziak irekitzeko proiektuek, batez beste, urte eta erdi behar izaten dute baimenak eskuratzeko; eskaerak pilatu egin dira azken urteetan.

2008ko urtearen bigarren erdialdean, «muturreko egoera» hori okertu egin zela azaldu zuen Ingurumen Sailak txosten hartan: «Garraio azpiegitura handien izapideak pilatu dira: abiadura handiko trenaren linea eta Donostia nahiz Bilboko metropoli-saihesbideak. Azpiegitura horiek, berez, gure lurraldearen orografiatik, lur-soberakinen biltegi franko behar dute». Eraikuntza sektoreak erabili ohi dituen zabortezi eta betelanetarako eremuak bikoiztu egin dituzte garraio azpiegituren zakartegiek. «Egoera horrek erruz gainditu ditu gure aurreikuspen guztiak, eta kanpoko laguntza eskatu beharrean izan gara». AHTko lanetako arduradunek ezin dute itxaron: zaborteziak ireki egin dituzte, lanekin jarraitu ahal izateko.

Zaborteziak baimenik gabe irekitzea «larria» dela ohartarazi du Etxeberriak: «Administrazioak bazekien lanak aurrera zihoazela, publikoa izan da hori, eta itsuarena egin du». Jarduerarik traketsenetako bat Orozketan jazo da, Iurretan (Bizkaia). Orozketan zabortezia egon zen garai batean, baina zigitatua eta itxia zegoen; landaretzak gaina ere hartu zion. Orain gutxi arte. Orozketako zabortezi zaharrea era guztietako hondakinak isuri ziren irekia egon zen bitartean: pneumatiko zaharrak, fundizioetako zaborrak, jatorri anitzeko lur kutsatuak, bateriak, ibilgailu zatituak, etxetresnak... baita material arriskutsuen ontziak ere. Baina orain zabalik da, AHTaren hondakindegia gisa erabiltzeko. «Inongo neurri eta kontu barik ireki dute hondakindegia, eta era guztietako hondakinak barreiatu dituzte inguruko eremu batzuetara», Etxeberriak dioenez.

Zaborteziaren garai hartan izandako «irregularitasunak» zirela medio, Orozketako zaborteziaren kasua luze egon zen epaitegietan, behin betirako itxi zen arte. Etxeberriak oroitarazi du Orozketan bi txosten daudela katalogatuak lur kutsatu gisa; hortaz, zabortezia irekitzen hasi aurretik, obraren arduradunek bertan zer zegoen jakin behar zutela eta «zehatz-mehatz» aztertu behar zutela dio, Europako eta Espainiako legeek hala agintzen dutelako. Zabortezia irekitzearekin bat, gainera, hondakin lixibatuek ihes egin dute, eta Etxaran errekarra jausi dira lohiak, plastikoak, pneumatiko zatiak, metal astunak... Ibaizabalen adarretako bat da Etxaran. Zaborteziari buruzko txostenetan ageri denez, osagai kimikoak zeuden Orozketan; lixibatuekin batera, errestan joango ziren Etxaran errekarra. Mendi magal bat ere jausi zen, eta Iurretako bizilagunei pasabidea galarazi.

Adif konpainia -Espainiako trenbide sarea kudeatzen du- eta Orozketako zabortezia irekitzearen ardura duen enpresa auzitara eraman ditu AHT Gelditu! Elkarlanak. Epailak salaketa artxibatu bada ere, gorago jotzeko asmoa agertu dute elkarlaneko kideek. Iragarri dute Bizkaiko Lurralde Auzitegian aurkeztuko dutela, orain, salaketa. Salaketa artxibatu bada ere, gertatzen ari zen «itxuragabekeria» ikusita, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitaterako Zuzendaritzak Orozketako zaborteziaren lanak bertan behera uztea agindu zuela azaldu du Etxeberriak; proiektuak ez zituela gutxieneko baldintzak betetzen eta dokumentazio gehigarria eskatu zien obraren arduradunei. Agindua «bat-batekoa» izan zen, eta soilik segurtasunerako eta lixibatuek kudeatzeko lanak egin daitezke, gaur-gaurkoz, Orozketan. Nolanahi ere, agindua iritsi arte, 500.000 bat metro kubo lur mugitu dituzte makinek Orozketan. «Ez dira, inolaz ere, magala egonkortzeko lan soilak izan», argitu du Etxeberriak.

Jaurlaritzaren arabera, Adifek baimendu zituen isurketak Orozketan, baina zabortezia lehenago

ondo itxi behar zen. «Une honetan enpresa zigilatzea bukatzen ariko da, berriro betelanekin hasi ahal izateko». Bitartean, beste toki bat eskatu dute inguruan, hondakinak utzi ahal izateko.

Orozketakoa adibidea baino ez dela ohartarazi du Etxeberriak. AHTak Durangaldean behe aldeko ibar eta arro guztiak gaineratik pasatu dituela azaldu du, ibilbideak denak zeharka pasatzen dituelako, eta, pasatzen ez den tokietan, zabortegeiak eta betelanak egiten ari direlako. Horrekin, erreka eta erreka guztiak ere gaineratik igaro dituzte AHTko lanek. «Sistema hidriko guztia eraldatu du horrek», dio Etxeberriak. Gainera, abereentzako korridore berezkoak diren erreka eta erreka galeria eta baso ibilbideak ere desegin direla salatu du, eta ibarren goiko eta beheko aldean arteko lotura eten dela.

Lehergailu tonak. Tren lasterreko Bizkaiko lanak aurrera ateratzeko 1.700 tona lehergailu beharko dira. Tunelak zulatze erabiliko dira, batik bat, lehergailu horiek. Guardia Zibilak ikuskatzen ohi ditu lehergailuak erabiltzen diren prozesu guztiak.

Iurretan tunel bateko lanak eten dira, zulo bat egin delako: Tren lasterraren tunel bateko lanak eten egin dituzte Iurretan (Bizkaia); Orozketa eta Larrinagatxu arteko tunela egiten ari zirela, hondarrarekin topo egin dute, eta hiru bat metroko diametroko zuloa egin da tunelaren goiko aldean. Lanak eten egin dituzte, eremua finkatu eta arriskua saihestu bitartean.

Informazioa ez emateagatik, auzitara eraman dute Nafarroa: Nafarroako Gobernua auzitara eraman du herritar talde batek, AHTari buruzko informazioa ez emateagatik. Arartekoak eskatu zion gobernuari, iazko otsailean, AHTaren ingurumen eraginari buruzko informazio guztia herritarren esku jartzeko. Urtebete igaro den arren, gobernuak ez du informaziorik agertu.

Lur mugimenduak, milioika metro kubotan. *Euskal Y*-a egiteko lanetan 50 milioi metro kubo lur mugituko dira, gutxi gorabehera, lan guztiak egin ahal izateko. Lur mugimendu horretatik sortuko denarekin, lurrez bete ahal izango lirarteke 50 bat San Mames Barri, eraikinaren beheko aldetik hasi eta goraino, oso-osorik.

Hondakindegietara. Lur mugimendu horietatik heren bat inguru, 16 milioi metro kubo, hondakindegietan eta betelanetan botako dituzte.

Kamioiakadak. 7 milioi kamioiakada baino gehiago beharko dira *Euskal Y*-a egiteko. 7 metro kubo lur lekualdatzen ditu kamioi batek, aldi bakoitzean.

‘Euskal Y’-a Europako tren korridoreen artean sartu dute *Euskal Y*-a ez zegoen hasierako egitasmoan, baina EAJk aurkeztutako mozio bat onartu zuen, atzo, Europako Parlamentuak, eta, hura bitarteko, Europako zortzi tren korridoreetako batean sartu da *Euskal Y*-a. Ebazpenak finantzaketa erraztu, baliabideak hobetu eta koordinazioa handituko duela dio EAJk.

Lurra hondoratu egin da Iurretan (2010-06-14)

Iurretako San Andres auzoan lurra hondoratu egin da baserri batzuen ondoko landan. Azpian Larrinagatxutik (Durango) Orozketara (Iurreta) doan tunela zulatzen dabilta eta horren ondorioz, gaineko landan zulo bat agertu da. Inguruko baserrietakoek esan dutenez, tunelean bertan lanean zebiltzanak konturatu dira lurra jausi dela eta gaur goizean (astelehena, ekainak 14) ADIFeko zazpi bat auto joan dira ingurua begiratzera eta zuloa plastikozko hesi batez inguratzera.

San Andreseko bizilagun batek esan digunez, aste bitartean egunero jasan behar izaten dituzte lurrazpiko leherketak, eta etxean egonda ere igartzen dituzte (kristalek dardara egiten dute, apaletatik gauzak jausten dira eta jendeak ohean egonda ere igartzen ditu).

Zuloa landa batean dago, baina zulotik berrehun bat metrora hainbat baserri daude. Hondamendiren bat eragiten ez duten arte ez dute txikizioa geratuko? Horren aurrean zer esateko dauka Iurretako udalak eta bertan agintzen duen EAJk?

Ha habido un hundimiento de tierra en una landa junto a unos caseríos en el barrio San Andrés de Iurreta. Por debajo están agujereando el túnel que va de Larrinagatxu (Durango) a Orozketa (Iurreta) y a consecuencia de eso ha aparecido un agujero en la landa de encima. Según han comentado los baserritarras de la zona, los trabajadores que estaban haciendo el túnel se han dado cuenta del hundimiento porque les ha debido de caer tierra dentro del túnel, y hoy (lunes, 14 de junio) a la mañana han ido unos siete coches del ADIF a mirar lo que ha pasado y a rodear el agujero con plástico.

Un vecino de San Andrés nos ha contado que entre semana todos los días tienen que soportar las explosiones subterráneas y que incluso estando en casa las notan (los cristales tiemblan, algunas cosas se caen de las baldas y la gente siente las explosiones hasta cuando está en la cama).

El agujero está en una landa, pero está solamente a unos doscientos metros de varios caseríos. No van a parar con la destrucción hasta que provoquen alguna catástrofe? Qué tiene que decir ante eso el ayuntamiento de Iurreta y el PNV que gobierna allí.

<http://www.durangokoelkarlana.info/2010/06/14/lurra-hondoratu-egin-da-iurretan-hundimiento-de-tierra-en-iurreta/>



Tunelaren sarrera. Hortik 200 bat metrora dago zuloa / Entrada del túnel. El agujero está a unos 200 metros



El sobrecoste del TAV en Gipuzkoa, más del doble del «plan de ajuste» de López (2010-06-09)

Iñaki Arriola informó ayer en la Cámara de Gasteiz de que el sobrecoste del tramo del TAV en Gipuzkoa es «a día de hoy» de 303 millones de euros, más del doble de los recortes anunciados por López. La cantidad, que «aún no está cerrada», supone un 18,45% más del cálculo inicial.

El consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, Iñaki Arriola, aseguró que el sobrecoste del TAV en Gipuzkoa es «a día de hoy» de 303 millones euros. Esta cifra supone más del doble de todo el «plan de ajuste» que hace escasos días anunció Patxi López; no obstante, todavía puede incrementarse.

Tal y como reconoció Arriola, en su comparecencia en la comisión parlamentaria correspondiente, el 35% del trazado guipuzcoano todavía está en fase de estudio informativo, por lo que la elevada cifra anunciada «no está cerrada».

Iñaki Arriola tuvo que dar explicaciones sobre las razones del incremento del coste de las obras del TAV en el ramal Bergara-Irun, a petición del grupo parlamentario de Aralar. Este tramo es el único cuya construcción es competencia exclusiva del Ejecutivo de Lakua, y que también adelanta su financiación y que le es devuelto vía Cupo. Los ramales de Araba y Bizkaia, sin embargo, corren a cargo del Gobierno español, que también es el que, en último término, sufraga la totalidad de los trabajos realizados en los tres herrialdes.

En mayo eran 260 millones

El titular de Obras Públicas y Transportes de Lakua precisó que aunque el pasado mes de mayo se habló de un encarecimiento de 260 millones respecto a la previsión que su Ejecutivo y el español realizaron en 2006, cuando firmaron el acuerdo de colaboración para la construcción del TAV en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, dicha cifra «no incluía los costes de las expropiaciones». Un mes más tarde, Arriola confirmó que el sobrecoste, por el momento, es de 303 millones de euros.

En el convenio firmado hace cuatro años se hablaba de un coste de 1.642 millones de euros. Sin embargo, «el esfuerzo por reducir el impacto ambiental y mejorar aspectos de tipo paisajístico y de integración urbana» de la macro-obra supone que, en estos momentos, el coste estimado de la obra en Gipuzkoa sea de 1.945 millones de euros. Un 18,45% más de lo presupuestado en 2006, en los que ya se habían incluido los pertinentes informes ambientales.

Preguntado por el parlamentario del PNV Juan Antonio Arieta-Araunabeña sobre si el Estado español asumirá el sobrecoste de las obras guipuzcoanas, Arriola señaló que «las mejoras» se han introducido con el acuerdo previo de Adif y opinó que su financiación por parte de Madrid «está garantizada mientras el Estado perdure y tenga capacidad financiera».

Respecto al recorte de inversiones anunciado por el Ministerio español de Fomento, el consejero dijo esperar que la afección sobre el TAV «sea la mínima posible» y continúe siendo una prioridad.

Provisional

Los 303 millones de euros cifrados ayer no responden a una cantidad «cerrada». Iñaki Arriola indicó que el 35% del trazado Bergara-Irun aún está en fase de estudio informativo, por lo que esta cifra podría aumentar.

Un dinero «bien invertido» y para «mejoras ambientales»

El consejero de Obras Públicas y Transportes de Lakua, Iñaki Arriola, consideró ayer en comisión parlamentaria que el sobrecoste de 303 millones de euros para el trazado guipuzcoano del TAV «es un dinero bien invertido desde el punto de vista de la sostenibilidad». En palabras de Arriola, ese incremento del 18,45% sobre el coste inicial está dirigido fundamentalmente a «reducir el impacto ambiental y a mejorar aspectos de tipo paisajístico y de integración urbana».

Arriola concretó que las «mejoras ambientales» para el trazado Bergara-Irun serían, entre otras, la creación de 13 nuevos falsos túneles, que supondrán un sobrecoste de 55,58 millones de euros; la sustitución de terraplenes por viaductos, 20,7 millones; o las modificaciones derivadas por cambios de trazados y nuevas funcionalidades en la línea, que supondrán un encarecimiento de 108,6 millones. Los cambios introducidos en dos tramos en cumplimiento de una sentencia del Tribunal Supremo español elevan a 226 millones el coste de las «mejoras paisajísticas». La actualización de algunos precios respecto a los fijados en 2006, entre otras causas elevan el sobrecoste provisional a 303 millones de euros.

Noticias principales

2010-06-25

Zornotzako baserri okupatua, AHTrik Ez!!

Eguastenean, ekainak 23, Zornotzako Leginetxe auzoan AHTren obrak gelditzeko asmoarekin zenbait ekintzaile eskabadorak lanean ziharduten tokira gerturatu eta langileei lanak gelditzeko eskatu zieten, eskabadora, kamioia eta beste makineria AHTren kontrako pintadez betez. Kamioiko jabea oso modu txarrean hurbildu zen, ekintzaileak mehatxatuz. Arratsaldean, ertzaintza hurbildu zen auzo berean okupatuta dagoen baserrira, eta [...]

2010-06-23

Pasaiako kanpo portuaren proiektua ia erdira murriztu du Administrazio Kontseiluak

Pasaiako kanpo kaia, izatekotan, hasieran aurreikusitako proiektuaren aldean ia erdia izango da, gaur Pasaiako portuaren Administrazio Kontseiluak bileran erabaki duenez. Jaizkibelen magalean legoke kanpo portu hori -aurreikusi bezala-, ehun hektarea izango lituzke, 2,8 kilometroko dikea eta 750 milioi euroko aurrekontua.

2010-06-22

26 de Junio, manifestación en Iruñea: Nafarroa bizirik nahi dugu!

Más de una docena de colectivos contrarios a proyectos destructores de la naturaleza previstos en Nafarroa convocan el 26 de junio una manifestación en Iruñea (a las 18:00, desde los cines Golem), bajo el lema «Nafarroa bizirik nahi dugu». Estos colectivos, entre los que se encuentra AHT Gelditu Elkarlana, han [...]

2010-06-19

Opositores al TAV se manifiestan contra un proyecto que nos está hipotecando

Opositores al tren de alta velocidad se manifestaron hoy por las calles de Bilbao para denunciar que este proyecto “ya nos está hipotecando” y reclamar su paralización. Bajo el lema ‘El TAV ya nos está hipotecando, AHT Gelditu’, la marcha convocada por la coordinadora de opositores a esta infraestructura AHT Gelditu Elkarlana [...]

2010-06-19

AHTren «hipoteka» geldiarazi beharra dagoela aldarrikatu dute

Herri honen etorkizuna «hipotekatzen» ari delako, AHT gelditu beharra dagoela aldarrikatu zuten atzo Bilboko kaleetan. AHT Gelditu! Elkarlanak ezagutarazi zuenez, 4.790 euro inguru dagokio herritar bakoitzari eraikuntza gastuei aurre egiteko, eta bien bitartean administrazioak gastu sozialak murrizten ari direla salatu zuten. Euskal gizartea proiektua geldiarazteko oraindik garaiz dabilela ohartarazi [...]

2010-06-16

Baimen guztiak jaso gabe ireki dira AHTaren zakartegi gehienak

«Hondakindegia barik ez dago obrarik». Horrekin dena esan du Kimetz Etxeberria teknikariak. AHT abiadura handiko trenaren lanak gertutik jarraitzen ditu Etxeberriak, eta obrentzako zabortege gehienak baimen guztiak jaso gabe ireki dituztela azaldu du. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan abian diren AHTko lanetako lur eta hondakinak biltzeko, 32 hondakindegia ireki dituzte; azaroan, [...]

2010-06-15

AHT geldiarazteko manifestazio nazionala deitu du AHT Gelditu! Elkarlanak datorren larunbatean Bilbon

AHT GELDITU! Elkarlanak manifestazio nazionala deitu du datorren larunbatean Bilbon, AHTaren eraikuntzan gobernuak egiten ari diren diru-xahuketak gizarte osoari dakarkion hipoteka larria salatzen eta ingurumenari erasotzen dion azpiegitura erraldoi honen eraikuntza bertan behera gelditu dadin exigitzeko. Hori dela eta, AHTren HIPOTEKAK ITOTZEN GAITU, AHT GELDITU! lelopean egingo den mobilizazio honetara ahalik eta jende [...]

2010-06-15

AHT Gelditu! Elkarlana junto a sindicatos y grupos sociales llama a decir un NO rotundo al TAV este sábado en Bilbo.

La coordinadora opositora al Tren de Alta Velocidad AHT GELDITU! Elkarlana ha convocado para el próximo sábado 19 de junio una manifestación nacional para denunciar la grave hipoteca que está suponiendo el derroche de presupuestos públicos en las obras del TAV y exigir la paralización de la construcción de esta gigantesca infraestructura que [...]

2010-06-14

Lurra hondoratu egin da Iurretan

Iurretako San Andres auzoan lurra hondoratu egin da baserri batzuen ondoko landan. Azpian Larrinagatxutik (Durango) Orozketara (Iurreta) doan tunela zulatzen dabilta eta horren ondorioz, gaineko landan zulo bat agertu da. Inguruko baserrietakoek esan dutenez, tunelean bertan lanean zebiltzanak konturatu dira lurra jausi dela eta gaur goizean (astelehena, ekainak 14) ADIFeko [...]

2010-06-12

Sella tu rechazo al TAV, segunda acción de M!M

Esta mañana se ha realizado un acto ante la sede del Banco de España en la Gran vía de Bilbao. El objetivo del mismo era dar a conocer la campaña SELLA TU RECHAZO AL TAV. Esta campaña que se prolongará durante los siguientes meses consiste en sellar el texto AHT-TAV [...]